




Begoña Zubero

Munduaren argazki bat



Xabier Gantzarain
@gantzarain

CAS & GAS (2007)

Argazki seriea. Neurri aldakorrak

Bilboko Vanguardia galerian dauka orain erakusketa, *Po bailarako jendea*, Po ibaiaren hegietan ateratako argazki seriea, Michelangelo Antonioni zinegileari egindako keinua, 1943an grabatu zuen dokumentalaren uberan, leku baten ari-ma harrapatzeko saiakera. Bere webgunean dauzka lanik gehienak ikusgai.

Argazki dokumentalista estatubatuarren eskolaketat dauka bere burua artistak, logikoa ere bada, New Yorken osatu baitzuten Madrilén hasitako ikasketak. Walker Evans aipatu izan dute bere lanari buruz hitz egiteko, baina ez da beharrezkoa.

Nortasun handiko estilo berezia du Begoña Zubero Apodakak (Bilbo,

1962ko irailaren 17a). Lekuak harrapatzen ditu argazkietan, gehienetan ez da jenderik ageri, paisaia bera mintzo da hango jendeez.

Batzuetan beharrezkoa izaten da gauza ebidenteak gogora ekartzea: "Argazkiak buruarekin egiten dira, ez hatzarekin", esan zuen artistak elkarrizketa batean, "eta argazkiaren unea bera bezain inportanteak dira aurretiko lana zein ostekoa". Buruan ideia batekin abiatzen da artista leku batera, baina, berak esatera, ideia hori zeharo aldatu daiteke behin lekuan bertan zaudela, hura barneratzen duzunean, bere xehetasun eta ñabardurak ezagutzen dituzu-

nean. Argazki bat egitera joan eta beste batzuekin itzultzen zara etxera akaso.

Lan ugari egindako artista da Begoña Zubero. Bere serierik ezagunena beharbada *Existenz* izango da, XX. mendeko erregimen totalitarioen arkitektura aztertzeko saiakera, Erroman, Moskun, Berlinen, Varsovian eta Erevanen egindako argazkiak biltzen dituen, tartean Berlineko Tempelhof aireportuarenak.

Armeniako egonaldian begia eta kamera beste leku batzuetara ere joan zitzaien ordea, eta han osatu zuen *Cas & Gas* serie hau, kasinoak eta gasolindegia biltzen dituen, Armenia berriaren erakusgarri. ■